



## *Ormaiztegui Udala*

Udal1-batzarre  
E-19.10.05

### **2019eko urriaren 14eko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE EZOHIKOA**

ORMAIZTEGIIn, 2019eko urriaren 14ean, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, Agustín GILABERT MOLINS alkateorde jaunaren lehendakaritzapean BATZARRE ezohikoa lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta aldez aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Ione USABIAGA ARRATIBEL And.
- Dunixi MURUA ANTIA Jna.
- M. Lierni YURRITA ARREGI And.
- Asier ETXARRI ESKISABEL Jna.
- Garazi HACH EMBAREK IRIZAR And.
- Aitor OKARIZ ELORTZA Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatuta:

- Jon ENRIQUE GALARZA Jna.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Juan LOBATO AMADO Jna.

Segidan Lehendakariak hasiera ematen dio bilerari, Udala osatzen duten eta dagozkion kideetatik gehienak bertaratu direnez eta, ondorioz, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.

...//...  
E-19/10-01



## *Ormaiztegui Udala*

Udal1-batzarre  
E-19.10.06

...//...

### **LEHENENGO PUNTUA:**

#### **2020. URTEKO EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALEN HASERAKO ONARPENA.**

Idazkariak udalkideen esku jarri du Alkatetzaren proposamena, aurretik Ogasun eta Kontuen Batzordean 2019/10/09-ko saioan landu zena.

Eztabaida ireki da baina ez da partehartzerik izan. Ondorioz, bozkatzeari ekin zaio eta ahobatez onartu da.

### **BIGARREN PUNTUA:**

#### **IRAI ERROTAKO SEKTOREA GARATZEKO HITZARMEN URBANISTIKOA ETA KONTZERTAZIO BATZORDEAREN ESTATUTUAK BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

Idazkariak adierazi du uztailaren 29an iragarri zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hasierako onarpena eta abuztuaren 2an akats baten zuzenketa iragarri behar izan zela. Ondoren ireki zen informazio publikorako epean ez dela alegaziorik izan azaldu du.

Udalkideek ez dute ekarpenik egin eta bozkatzeari ekin zaio. Eraitza ahobateko onarpena izan da.

### **HIRUGARREN PUNTUA:**

#### **02/2019 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA.**

Kreditu Aldaketari dagokion espedientea jarri da udalkideen esku, aurretik Ogasun Batzordean landu zena. Laburpen txiki bat egin du idazkariak eta zinegotziek galderarik, oharrik edo kexarik izan ez dutenez, bozkatu egin da eta ahobatez onartu.

### **LAUGARREN PUNTUA:**

#### **01/2019 KREDITU ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.**

Idazkariak azaldu du irailaren 20an argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 01/2019 Kreditu Aldaketaren hasierako onarpena. Erakustaldi publikoak iraun duen bitartean ez dela alegaziorik aurkeztu adierazi du.

...//...

E-19/10-02



## Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre  
E-19.10.07

...//...

Zinegotzi jaun-andreek ez dute zeresanik agertu eta bozkatzeari ekin zaio. Ahobatez onartu da.

### **BOSTGARREN PUNTUA:** **ERREGUAK ETA GALDERAK**

Hitza eman zaie udalkideei, baina ez da ekarpenik izan.

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:15 ordu direnean, bilkura amaitutzat eman da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2019ko urriaren 16an.

Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin.: Begonia Antxustegi Bengoetxea

...//...

E-19/10-03